

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek bere negozio-ereduak funtziona dezan hartu beharra dituen neurriak dira.

Gure enpresaren ekoizpenak denboran jarraipena izan eta arrakasta izaten jarraitu dezan, prozesuan zehar sortzen diren hainbat arazoei aurre egiteko modu arrakastatsu eta ahalik eta azkarrena pentsatu beharko dugu.

Lehenik eta behin, makinekin sortzen diren arazoak teknikoak izango dira, beraz, guk geuk, gure makina propioen funtzionamendua eta hauen muntaketari buruzko jakinduria tekniko minimoa izan beharko dugu; horrez gain, teknikoki arazo handiagoak sortzearen kasuan, tekniko aditu batekin kontaktua izango dugu, egunen batean arazo larriren bat sortuz gero laguntza izan dezagun.

Bestalde, plataforman ere arazoak sor daitezkeenez, beraz, web orria sortu aurretik, jakinduria pixka bat bildu beharko dugu, eta makinekin bezala, informatiko aditu batekin ere kontaktua beharko dugu, arazo larriagok izatearen kasuan.

Arazoari buruz jakiten dugun momentu berean honi aurre egin ahal izateko, bi datu izan beharko ditugu kontuan. Lehenik eta behin arazoa konpontzerakoan, ahalik eta bizkorren egitea, eta bestalde, konpontze prozesuan zehar bezeroa informatua izatea. Beraz, arazoa teknikoa denaren kasuan, bezeroa gertu bilatzen bada, gu geu inguratuko gara haren etxera (aldeztu aurretik arazoa zein den jakinda, eta behar izan ezker teknikoarekin elkartuta), horrela, arazoa momentuan bertan konpon badaiteke, konpontzeko, eta ezin bada, gu geuk makina gure bulegora ekarri eta bertan konpontzeko. Aldiz arazoa informatikoa bada, hau da sarearekin arazoren bat badugu, ahalik eta bizkorren konpontzen ahaleginduko gara, kasu zailenean informatikoarekin kontaktuan jarritz.

Arazo guzti hauek guk jakin ditzagun, plataforman, proposamen zatia ipiniko dugu, jendeak bere proposamenak egin ditzan eta gu ere denboraren poderioan hobetuz joan gaituzten, betiere erosleek gustura.

Azkenik, honetarako, lehentasun batzuk ipini beharko ditugu, lehenik eta behin lankideen artean, banaketan egingo ditugu, bakoitza bere zatian ahalik eta gehien espezifikatu dezan; horrela, bakoitzak bere aldetik lan eginez. Lehenik eta behin konpontzen tardatuko duen denboraren eta eroslearen kokapenaren arabera, denbora gehien tardatuko duen makina identifikatuko dugu, horrela bezeroak ahalik eta gutxien itxaronarazi ditzagun. Makinaria aldetik arazo asko sortu ezker, salmentan pausa bat egingo dugu, eta makinak ongi aztertu beharko ditugu, horrela honetan aldatu beharrekoa identifikatuz; bestalde, zati informatikoan espezifikatu diren batzuk ere makinetara pasatuko ditugu (lan errazenetan laguntzera) laguntza gehiago izan dezagun.